



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA



ZESTOAKO UDALA

AZPEITIA, AZKOITIA ETA ZESTOAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, UROLA ERDIKO IKASLEEI ESKAINIKO ZAIEN LOGOPEDIA ZERBITZUA KONTRATATZEKO, KUDEATZEKO ETA FINANTZATZEKO.

Azkoitian, 2013ko urtarrilaren 1ean

BILDURIK

ENEKO ETXEBERRIA BEREZIARTUA J., Azpeitiko udaleko Alkate-Lehendakaria.

PELLO BASTARRIKA ELORZA J., Azkoitiko udaleko Alkate-Lehendakaria.

RUBEN ALBERDI URANGA J., Zestoako udaleko Alkateordea, Alkatearen eginkizunetan

Egintza honetan fede ematen du Begoña Garmendia Vazquez, Azkoitiako udaleko Idazkariak

ESKU HARTU DUTE

ENEKO ETXEBERRIA BEREZIARTUA jaunak, bere jarduneko kargua betez, Azpeitiko udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, udalbatza plenoak 2013ko XXXXX ean hartutako ebazpenaren arabera. Aipatu erabakiaren ziurtagiria eransten zaio hitzarmen honi 1. dokumentu gisa.

PELLO BASTARRIKA ELORZA jaunak, bere jarduneko kargua betez, Azkoitiko udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, udalbatza plenoak 2013ko azaroaren 28an hartutako ebazpenaren arabera. Aipatu erabakiaren ziurtagiria eransten zaio hitzarmen honi 2. dokumentu gisa.

RUBEN ALBERDI URANGA jaunak, bere jarduneko kargua betez, Zestoako udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, udalbatza plenoak 2013ko azaroaren 28an hartutako ebazpenaren arabera. Aipatu erabakiaren ziurtagiria eransten zaio hitzarmen honi 3. dokumentu gisa.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA



ZESTOAKO UDALA

Honenbestez, elkar behartzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, honako aurrerakinak azalduz.

AURREKARIAK

LEHENA.- Azken urte hauetan, Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako udalek, beren udalerrietan kokatutako ikastetxe ezberdinetako ikasleei logopedia zerbitzua eskaini diete, kapital publikoarekin osaturik dagoen Iraurgi Lantzen S.A.ren berariazko baliabidea erabiliz.

Logopedia zerbitzu hau, hezkuntza sistemaren zerbitzu publikoen arretatik kanpo gelditzen diren mintzairako zailtasunak dituzten lehen hezkuntzako ikasleei zuzentzen zaie, honako tratamendu hauek eskaintzen direlarik:

- Dislalietatik eratorritako patologien tratamendua, haiek zuzentzeko bideak jarriz, hau da, fonema bakoitzaren emisioan parte hartzen duten artikulazio organoen kokapen eta/edo erabilera okerraren ondorioz fonema bat edo batzuk oker artikulatuzetik datozenak.
- Lehen hezkuntzako ikasleen nortasunean eta eskolako emaitzetan nahasmenduak sor ditzaketen hizkera-akats larriak saihestu edo zuzendu.

BIGARRENA.- Zerbitzu hau kontratatzeko publizitaterik gabeko jardunbide negoziatua garatu ondoren, Iraurgi Lantzen S.A.ren ordezkariak eta Eburne Uzkudun Gurrutxaga A.k dagokion kontratua formalizatu zuten 2011ko urriaren 19an. Aipatu kontratuaren iraupena bi ikasturtekoa zen(2013ko ikasturtea amaitu arte), urtebeteko luzapena aurreikusten zelarik.

2012-2013 ikasturtean zehar, logopediako zerbitzuak honako ezaugarri nagusiak izan ditu:

- 143 ikasle tratatu dira: 77 Azpeitikoak, 49 Azkoitikoak, eta 17 Zestoarrak
- ikasleak, hiru herrietakoak izan dira (Azpeitia, Azkoitia eta Zestoa)
- ikasle bakoitzak astean bi saio, 20 minutukoak, jaso ditu
- saio bakoitza, bi edo hiru ikasleekin egin da, zailtasun berdinak edo lan programaren arabera

Gau egun, Iraurgi lantzen S.A.k urtebetez luzatu du aipaturiko kontratua, beraz, 2013-2014 ikasturtea amaitu arte indarrean egongo da. Iraurgi Lantzen S.A.ren Administrazio Kontseiluak onartutako aurrekontuaren arabera, zerbitzuaren gehieneko kostea 18.210,00 €.koa izango da.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA



ZESTOAKO UDALA

HIRUGARRENA.- Halaber, Iraurgi Lantzen S.A.ren Administrazio Kontseiluak, 2013ko ekainaren 24an egindako bileran, egun baltzu honek kudeatzen dituen zenbait programa udalei itzultzeko proposamena onartu zuen, beraiek kudea ditzaten, horien artean Logopedia zerbitzua aurkitzen delarik.

Azpeitia, Azkoitia, eta Zestoako udaletako udalbatza plenoek, Iraurgi Lantzen S.A.ren Administrazio Kontseiluak egindako proposamena onartu dute, eta Logopedia zerbitzua era zuzenean kudeatzeko erabakia hartu dute, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85.2.A).a) atalean xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA.- Hitzarmen hau izenpetzen duten udal ordezkarien aburuz, Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako ikastetxeetan logopedia zerbitzua era koordinatuan eskaini behar da, orain arteko esperientzian oinarriturik. Bestaldetik, xede horretara atxikitzen diren baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatu behar dira, zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzearren. Arrazoi hauengatik, hiru udaletako ordezkariak onartu dute lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzea, ondorengo xedea izango duelarik: Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako udalerrietan kokatutako ikastetxe ezberdinetako ikasleei logopedia zerbitzu bateratua eskaintzea. Horretarako:

- Logopedia zerbitzuaren kontratazio jardunbide bakarra gauzatuko dute hiru udalek, horretarako udal bati ahalmena eta enkargua emango dizkiotelarik.
- Aipatu zerbitzua finantzatzeko irizpideak adostuko dituzte hiru udalek eta dokumentu honetan islatuko dituzte.
- Zerbitzuaren kontrola kontratuaren esleitzailerak den udalak gauzatuko du, hitzarmen honetan xedatuko denaren arabera. Halaber, jarraipen batzorde bat eratuko da udal guztien jarraipena ahalbideratzeko.
- Hitzarmen honen jarraipenerako tresnak eta irizpideak finkatuko dira dokumentu honetan.

BOSGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua, besteak beste udal eskumeneko zerbitzuak emateko, Toki Administrazioa eta gainontzeko Administrazioen arteko lankidetzaren ekonomikoa, teknikoa, eta administratiboa arautzen du. Lankidetzaren hori, dagokion administrazio-hitzarmen edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6. artikulua, lankidetzaren hitzarmenak arautzen ditu, honakoaren arabera:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA



ZESTOAKO UDALA

- Lankidetza hitzarmenek erakunde bakoitzaren eskumenen eremua errespetatuko dute.
- Hitzarmenak, honako hauek zehaztuko ditu: hitzarmena izenpetzen duten organoek eta beraien gaitasun juridikoa; administrazio bakoitzaren eskumena; finantza-bideak; betetzeko adostu diren ekintzak; kudeaketarako antolakunderik behar den ala ez; hitzarmenaren indarraldia eta amaitzeko iraupenez bestelako arrazoiak.
- Hitzarmena zaintzeko eta kontrolatzeko organo mistoa eratuz gero, berak hartuko ditu beharrezkoak diren erabakiak hitzarmena interpretatzeko eta betetzeko.

Aipatutako aurrekariak kontuan hartuta, LANKIDETZA HITZARMEN hau adostu dute, jarraian zehazten diren estipulazioen arabera:

ESTIPULAZIOAK

LEHENA. XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako udalen arteko lankidetza esparru bat ezartzea, beren udalerrietan kokatutako ikastetxe ezberdinetako ikasleei logopedia zerbitzua eskaini ahal izateko.

BIGARRENA. ZERBITZUAREN KONTRATAZIOAREN ARDURA.

Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako udaletako ordezkariak, hitzarmen honen bitartez, hiru udalerrietan kokaturiko ikastetxeetako ikasleei logopedia zerbitzua kontratatzeko enkargua Azkoitiko udalari egin diote, beharrezkoa den lizitazio-jardunbidea gara dezala. Era honetan, aipatu udaleko zerbitzuek dagokion kontratazio espedientea osatu ondoren, zerbitzuaren lizitazioa izapidetuko dute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina arautzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilean (edo hori ordezkatzeko duena) xedatutakoaren arabera.

Horretarako, hitzarmen honetan arautzen den Jarraipen Batzordeak, urtero, honako hauek xedatuko ditu:

- Logopedia Zerbitzuaren ezaugarri nagusiak: zerbitzuaren deskribapena, hartzaileek bete beharreko baldintzak, profesionalak bete beharreko baldintzak, etab.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA



ZESTOAKO UDALA

- Logopedia Zerbitzuaren gehieneko kostea, eta hori ordaintzeko irizpideak, hitzarmen honetan xedatutakoaren arabera.
- Familien ekarpenak.
- Zerbitzua kontratatzeko beharrezkoak diren gainontzeko elementuak

Halaber, Jarraipen Batzordeak zerbitzua kontratatzeko Baldintza Administratiboetako Plegua eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertuko ditu, eta bere irizpidea loteslea izango da, beti ere indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik gero.

Kontratazio jardunbidea garatu ondoren, kontratuaren esleipena udal bakoitzaren organo eskudunaren ebazpenaren bitartez gauzatuko da. Ondoren, kontratu bakarra izenpetuko dute hiru udalen ordezkariak eta esleipenduna suertatzen den lizitatuak.

Klausula honetan xedaturiko kontratazio-enkargua, eta hitzarmenean aurreikusten den kudeaketaren ardura, era txandatu gauzatuko dute hitzarmena izenpetzen duten udalek, beraiek adosturiko ordena eta iraupenaren arabera.

HIRUGARRENA: KONTRATUAREN EXEKUZIOA, ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPEN TEKNIKOA

Logopedia Zerbitzuaren kontratutik erator daitezkeen arazo, interpretazio, aldaketak, eta, bere kasuan, deuseztapena, udal bakoitzaren organo eskudunak ebatzi behar du, Jarraipen Batzordearen proposamena entzun ondoren. Ebazpen hauek kontratazioa izapidetu duen udaleko zerbitzuek bideratuko dituzte

Halaber, Jarraipen Batzordearen ardura izango dira zerbitzuaren jarraipena eta ikuskapen tekniko gauzatzea, halaber zerbitzuaren prestazioari buruzko proposamenak aurkeztea.

LAUGARRENA: HITZARMENAREN JARRAIPEN BATZORDEA

Jarraipen Batzordea eratuko da eta hor egongo dira hiru udal bakoitzaren bi ordezkari: Alkate-udal burua edo berak izendutako ordezkari zinegotzia, eta Hezkuntza gaietarako Teknikari arduraduna edo bere ordezkaria. Halaber, Batzordeak egiten dituen bileretan zerbitzuaren koordinazioa burutzen ari den udalaren Idazkariak parte hartuko du, fede publikoa emateko.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA



ZESTOAKO UDALA

Organo horrek bere kideen gehiagoaren bidez hartuko ditu erabakiak, eta gutxienez hiru hilabetetik behin bilduko da.

Ados egon ezean, desadostasun-agiria jasoko da, baino udalek hartzen dituzten erabakiak berehala exekutiboak izango dira.

Erabaki horiek administrazio-bideari amaiera emango diote eta berorien aurka administrazio-auzaldietarako epaitegian errekurtsioak jarri ahalko dira.

Azkoitiko udalak kontratuaren araudia zehatz betetzen dela bermatzeko ahalmena du, batez ere aurrekontuari, lanen egitarauari eta baldintzen pleguei arreta berezia emango die.

Jarraipen Batzordeari, berriz, zeregin hauek dagozkio:

- a) Logopedia zerbitzua lizitatu aurretik, bere ezaugarri nagusiak, finantzazio baldintzak eta kontratuaren gainontzeko elementuei buruzko proposamenak egin.
- b) Administrazio pleguak eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertu, bere irizpideak lotesleak izango direlarik. Hamabost eguneko epea izango du iradokizunak egiteko.
- c) Azkoitiko udaleko kontratazio organoak kasuan kasuko zerbitzu-kontratuaren adjudikazioa proposatu aurretik, Kontratazio Mahaiak edo kontratazio-organok eskatu dezakeen txosten teknikoaren berri izatea.
- d) Kontratuaren exekuzioan zehar, aldaketak, interpretazioak, edo bere kasuan, deuseztapenari buruzko proposamenak aurkeztea edo informatzea.
- e) Azkoitiko udalak onetsitako zerbitzu-ziurtagirien berri izatea, eta zerbitzuaren urteko txostenaren berri izatea.
- f) Zerbitzua emateagatik hiru udalek onartu behar dituzten tasak proposatzea, ordenantza fiskalak onartu aurretik. Halaber, zein jarduketa finantzatuko diren eta horretarako alderdi bakoitzak zein portzentaje ekonomiko ordainduko duen proposatuko ahal izango du. Hori guztia, hitzarmen honetako gainerako klausulak kontuan izanik.
- g) Hitzarmenean ezarritako gainerako zereginak eta, oro har, hitzarmenari edo kontratuen gaineko legeriari dagozkien bestelako kontuak koordinatzea eta haietaz informatzea, baldin eta batzordeko kideen ustez beharrezkoa bada, edo hitzarmeneko alderdietako batek proposatzen badu.
- h) Beharrezkoa izango da Jarraipen Batzordearen idatzizko akordioa zerbitzuen prestazioak aldatzeko, zerbitzu osagarriak ematea erabakitzeko edo kitapenak onartzeko, horiek hasieraz aurreikusitako gastuaren %10eko igoera ekartzen badute.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA



ZESTOAKO UDALA

BOSGARRENA: INFORMATZEKO BETEBEHARRA

Hitzarmen hau betetzean sortzen diren administrazioko tramite guztiak garatzeari eta betetzeari buruzko informazioa emango dio dagokin udalak Jarraipen Batzordeari, organo honek egiten duen hurrengo bilkuran.

SEIGARRENA: EKARPENEN KALKULUA ETA ORDAINKETA

Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako udalek finantzatuko dute logopedia zerbitzua udal bakoitzak egiten duen diru-ekarpenekin, klausula honetan xedatutakoaren arabera

Bestaldetik, zerbitzu hau finantzatu ahal izateko, udal bakoitzak tasa bat ezarriko die erabiltzaileei, dagokion ordenantza fiskalaren bitartez. Tasaren kopurua era adostuan finkatuko dute hitzarmen hau izenpetzen duten udalek, eta hiru udalerrietan berdina izango da.

Zerbitzuaren finantzazioari buruz, honako hau adostu dute hiru udalek: Logopedia zerbitzua kontratatu duen udalak, zerbitzua eskaintzeagatik hileroko ordainagiria jaso bezain laster, gainontzeko udalei igorriko die beraien zerbitzu teknikoek informa dezaten, horretarako hamabost eguneko epea izango dutelarik. Ondoren, hileroko ordainagiria ordainduko du udal arduradunak, beti ere sektore publikoko kontratazioa arautzen duen legeriak xedaturiko epea kontutan harturik.

Udalen ekarpenak honako era honetan gauzatuko dira: Udal arduradunak hiru hilabetetik behin dagokion kitapena kalkulatu eta helaraziko dio udal bakoitzari. Kitapena kalkulatzeko, kontutan hartuko dira zerbitzuarengatik egindako hileko ordainketak, udalerrri bakoitzeko erabiltzaile kopuruaren arabera banatuko direlarik. Era honetan, logopedia zerbitzuaren kostua era proportzionalen zatituko da udal guztien artean, bakoitzaren erabiltzaile kopuruaren arabera.

Azpeitia eta Zestoako udalek, zerbitzu teknikoek emandako txostenak aintzat hartuta, eta, bere kasuan, Jarraipen Batzordean elkartu ondoren, dagokien diru ekarpena ordainduko dute 30 eguneko epean ordainagiria udaletzeko erregistroan aurkeztu denetik zenbatzen hasita.

Epe hori gaindituz gero, Azkoitiko udalak eskatu ahal izango ditu berandutze-interesak eta kobratze-kosteei dagokien kalte-ordaina, abenduaren 29ko 3/2004 Legearen xedapenetan araututakoaren arabera.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA



ZESTOAKO UDALA

Udalen atzerapena sei hilabete baino gehiagokoa bada, Azkoitiko udalak, orobat, hitzarmena desegiteko eta horren ondorioz sortzen diren kalteak jasotzeko eskubidea izango du.

ZAZPIGARRENA. HITZARMENAREN IZAERA ETA ARAUBIDEA

Hitzarmen honek administrazio izaera du. Administrazio publikoen arteko lankidetzaz hitzarmenei aplikatu beharreko antolamendu juridiko eta administratiboaren arabera interpretatu eta garatuko da.

Hitzarmen honek edo bere betearazpenak sor ditzaketen interpretazio arazoak Jarraipen Batzordeak ebatziko ditu, Ezin bada hala egin, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 8.3 artikuluan xedatutakoa beteko da.

ZORTZIGARRENA. HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA

Hitzarmenak ez dakar alderdi jarduleek euren eskumenei uko egitea ezta eskumenok aldatzea ere. Alderdi jarduleek hitzarmena sinatuz berez sortzen diren erantzukizunak soilik onartzen dituzte.

Kontratazio-, ondarezko edo beste edozein erantzukizuna eskatzeko espedienteak izapidetuko ditu Azkoitiko udalak, gainontzeko udalei audientzia emanaz. Hala ere, udal bakoitzak izango du dagokion erabakia hartzeko ahalmena, bere udalerriaren esparruan.

Hitzarmenak, sinatzen den unetik, alderdi jarduleak behartuko ditu eta ondorioak izango ditu.

Hitzarmenaren iraupena, BOST urtekoa izango da, izenpetzen den unetik kontatzen hasita. Hala ere, iraupen hau luzatu ahal izango da, izenpetzen duten udalek hala erabakiz gero.

BEDERATZIGARRENA: HITZARMENA AZKENTZEA

Aurreko klausulan adierazitako indarraldia bukatzeagatik, edo suntsiarazi delako, azkenduko da hitzarmena.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA



ZESTOAKO UDALA

Alderdietakoren batek hartutako konpromisoak ez baditu betetzen, besteak ahalmena izango du konpromiso hori betetzeko agintzeko edo hitzarmena suntsiarazteko eskatzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Dokumentu honen bigarren aurrekarian aipatu denez, 2013-2014 ikasturterako logopedia zerbitzuaren kontratazioa Iraurgi Lantzen S.A.k jadanik luzatu du, zerbitzuaren etenaldia ekiditearren. Arrazoi hauengatik, eta 2014ko aurrekontuaren aurreikuspenak finkatzeko beharra kontutan harturik, hitzarmena izenpetzen duten udal ordezkariak Iraurgi Lantzen S.A.ren tokian subrogatzea adostu dute, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, indarrean dagoen kontratua amaitu arte, zera, 2014ko ikasturtearen bukaera arte. Beraz, hitzarmen honetan arautzen den lizitazio-jardunbideak, 2014-2015 eta hurrengo ikasturteak eragingo ditu.

Eta azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, agertutakoek hau sinatu dute, hirukoiztuta, goian adierazitako toki eta datan.